

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko, ondorengo baliabideak erabiliko ditugu:

## Baliabide fisikoak:

- Dendaren lokala.
- Erremintak: beharrezkoak direnak bizikleten mantenu eta konponketarako.
- Ordenagailua: bezeroen zerrenda bat izateko eta egunero egindako prozeduren segimendua izateko.
- Telefonoa: bezeroekin kontaktua errazteko eta beharrezkoan deiak egiteko aukera izateko.
- Furgoneta: bizikletak bezeroen etxeetara garraiatzeko, zerbitzu hori eskaintzen dugulako.

## Giza baliabideak eta baliabide intelektualak:

- Langileak: bostok izango gara. Hegoiren ideia originalak eta bizikleten munduarekiko zaletasuna, Mikelen trebetasuna erremintekin eta gauzak konpontzearekin, Paularen negoziatzeko abilezia, Anek duen trebetasuna webgunek eta sare sozialak kontrolatzeko eta bideratzeko eta Nerearen administratzeko ahalmena.
- Hornitzaileak: gure dendak izango dituen behar guztiak beteko dituzte, produktu ezberdinei dagokienez.

## Finantza-baliabideak:

- Boston artean jarritako dirua, gure proiektua aurrera eramateko gai izateko.
- "Programa Emprender y crear nuevas empresas en Álava" 20.000€
- "Programa subvenciones para PYMES, autónomos y asociaciones de Álava" 10.000€
- Pertsona ekintzaileentzako diru-laguntzak.
- "Programa de becas para emprender" Gasteizko udaletxeak ematen duen diru-laguntza.

